



PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

ZENTRUA	CPED KIROLENE KIIP	KODEA	
GRADU	ERDI MAILAKOA	ZIKLOA / MAILA	2
KODEA ETA MODULUA	MED-ASBD205 - Segurtasuna kirol-urpekaritzako ikastaroetan		

HELBURUAK	EDUKIAK
<p>A) Ikastaro batean parte hartuko duten ikasleen ezaugarri teknikoak, fisikoak eta psikologikoak identifikatzea eta antzematea, ezarritako prozedurak aplikatuta, hasteko baldintzak betetzen dituzten ebaluatzeko.</p> <p>B) Kirol-urpekaritzako ikastaro bateko saio teoriko eta praktikoen helburuak, edukiak, metodologia eta jarduerak zehazteko prozedurak eta jardueren tenporalizazioa aukeratzea eta justifikatzea, programa operatibora egokituta, ikasle-taldearen datuak eta bilakaera erabilita eta ikaskuntzaren printzipio aplikagarriak identifikatuta, epe laburrean saio teoriko edo praktiko bat programatzeko.</p> <p>C) Urpekaritzako hastapen-, sendotze- eta espezializazio-ikastaroetan ematen diren urpekaritza-ezagutzak eta -teknikak azaltzea eta frogatzea, horien garrantzia justifikatuta, eta ikasteko estrategiak eta behar diren argudioak aztertuta.</p> <p>D) Kirol-urpekaritzako ikastaroetako saio teorikoak eta praktikokoak egiten diren instalazioen eta urperatze-eremuen segurtasun-baldintzak aztertzea, indarrean dagoen segurtasunari buruzko araudia aplikatuz eta egon daitezkeen larrialdiak sailkatuz, jarduketa-protokoloak eta ebakuazio-plana ezartzeko.</p> <p>E) Ikaslearen azken mailak ebaluatzeko teknikak aplikatzea, erreferentziazko programazio orokorrean ezarritako irizpideei jarraituz, ikastaroan gai den ala ez zehazteko.</p> <p>F) Kirol-urpekaritzako ikastaro bateko ikasleekin harremanetan jartzeko teknikak eta estrategiak deskribatzea, aukeratzea eta erakustea, behaketa-, dinamika- eta kontrol-prozedurak aplikatuta, eta kasuak ebaztea, haien ikaskuntza</p>	<p>1. Oinarrizko mailako, maila aurreratuko eta espezializazioko ikastaroak gainditzen dituzten urpekarien segurtasuna sustatzen du, bete beharreko segurtasun-arauak aztertuz eta jarrerak eta aurreikuspen-prozedurak baloratzeko teknikak aplikatuz.</p> <p>2. Urperatzean, oinarrizko mailako eta maila aurreratuko ikastaroetan, lankide bati hondoan eta gainazalean nola lagundu irakasten du, izan daitezkeen larrialdi-egoerak aztertuz eta jarduteko prozedurekin eta sekuentziekin erlazionatuz, eta ikastaroaren helburuak eta baliabide didaktiko erabilgarriak aztertuz.</p> <p>3. Oinarrizko mailako, maila aurreratuko eta espezializazioko ikastaroetan urpekaritza-istripu bateko lehen sorospen espezifikoei buruzko prestakuntza ematen du, istripua izan duena baloratzeko irizpideak eta lehen sorospenetako teknika espezifikokoak aplikatuta, ikastaroen helburuak eta haren ikaskuntza errazten duten adibideak eta irudiak aztertuta.</p> <p>4. Oinarrizko mailako, maila aurreratuko eta espezializazioko ikastaroetako jardueretarako jarduketa-protokoloak eta</p>



errazten duen giroa sortzeko.

N) Urpekaritza-ikastaroen programak eta desgaitasuna duten pertsonentzako egokitzapen-prozedurak deskribatzea eta aplikatzea, desgaitasunen ezaugarriak sailkatuz, aukeraberdintasuna sustatzeko.

ebakuazio-plana prestatzen ditu, horien ezaugarriak aztertuta eta segurtasunari buruzko araudia aplikatuta.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Ikasleak behar bezala ezagutu beharko ditu honako elementu hauek:

- a) Segurtasun-arau orokorrak.
- b) Deskonpresio bidezko urperatzeak planifikatzeko eta egiteko segurtasun-arau espezifikoak.
- c) Nitrox arnasketa-nahasteekin urperatzeak planifikatzeko eta egiteko segurtasun-arau espezifikoak.
- d) Segurtasun-arau espezifikoak gaueko urperatzeetan eta ikuspen gutxiko urperatzeetan.
- e) Ingurune konfinatuetan murgiltzean bete beharreko segurtasun-arau espezifikoak.
- f) Segurtasun-arau espezifikoak ur-azalerako deriba-egoeretan.
- g) Lankideen sisteman oinarritutako segurtasuna.
- h) Jokabide arduratsua.
- i) Lankide bati laguntzarekin lotutako urpekaritza-ikastaroen helburuak.
- j) Estresa, larritasuna eta izua urpekaritzan.
- k) Izua saihesteko jarduketak.
- l) Autorreske ibili.
- m) Hondoko eta gainazaleko larrialdi-egoeren katalogoa. Aire falta, konortea galtzea eta nahasmendu mentala, muga fisikoak, izua eta hiperoxia.
- n) Larrialdi-egoera bat konpontzeko jardun-sekuentzia orokorra.
- o) Katalogoko larrialdi-egoera bakoitzari emandako erantzunak.
- p) Erreskateko eta atoian eramateko teknikak. Akatsak, kausak eta ikasteko eta zuzentzeko zereginak.
- q) Larrialdi-egoeretan jarduteko moduak erakusteko eta ikasteko egoera simulatuak.
- r) Urpekaritza-ikastaroen helburuak, gainazaleko lehen sorospen espezifikoak ematearekin lotuta.
- s) Jarduteko neurri orokorrak.
- t) Biziraupen katea.
- u) Urpekaritza-istripuak sailkatzea. Istripuen ezaugarriak.
- v) Itotzearen, biriketako gainpresioaren eta gaixotasun deskonpresiboaren kasuetan oxigeno normobarikoa ematearen ondorioak.
- w) Oxigeno normobarikoa emateko ekipoa: botila, manorreduktorea, maskarak eta beste osagai batzuk.
- x) Oxigeno normobarikoa hornitzeko teknikak eta arreta-neurriak.
- y) Akatsak oxigeno normobarikoaren horniduran.
- z) Oxigeno normobarikoa ematen erakusteko eta ikasteko egoera simulatuak.
- aa) Urpekaritza-ibilaldi batean uretatik kanpo gerta daitezkeen larrialdi-egoerak, jarduketak. Motak, kausak, prebentzio-neurriak.
- bb) Urpeko instalazioekin, urpekaritza-zentro eta -itsasontziekin lotutako segurtasunari eta arriskuen prebentzioari buruzko araudia.
- cc) Kirol-urpekaritzako ikastaro batean istripuren bat gertatuz gero laguntza eman dezaketen erakundeak eta zerbitzuak.
- dd) Larrialdietarako protokoloen eta ebakuazio-planaren edukiak eta egitura.
- ee) Erabaki zuzen eta okerren eragina.
- ff) Ikastaro-zuzendariaren erantzukizuna. Aplikatu beharreko araudia.

EDUKIEN SEKUENTZIA:



Irakasgaia betetzen duten gaiak orden sekuentzialean banatuko dira, 1etik 5era.

UNITATE DIDAKTIKOAK	HELBURUAK	EDUKIAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
UD, 1. zk. 6 ordu aurrez aurreko. Aire hiperbarikoa arnastean sortzen diren intoxikazioei buruzko prestakuntza ematen du, kirol-urpekaritzaren maila aurreratuko ikastaroetan; horretarako, kausak, sintomak eta prebentzio-neurriak identifikatzen ditu, eta helburuak, ebaluazio-irizpideak eta baliabide didaktiko erabilgarriak aztertzen ditu.	A, B, C, D, E, F.	1	a, b, c, d, e, f, g, h.
UD, 2. zk. 6 ordu aurrez aurreko. Nitrox arnas nahasketen erabilerari buruzko prestakuntza ematen du maila aurreratuko ikastaroetan eta kirol-urpekaritzaren espezializazio-ikastaroetan; horretarako, kalkulu-teknikak aplikatzen ditu erabilera-mugak ezartzeko, eta helburuak, ebaluazio-irizpideak eta baliabide didaktiko erabilgarriak aztertzen ditu.	A, B, C, D, E, F.	2	i, j, k, l, m, n, o, p, q.
UD, 3. zk. 6 ordu aurrez aurreko. Aire edo nitrox bidezko deskonpresiodun urperaketak igotzeko planak egiten irakasten du, maila aurreratuko ikastaroetan eta kirol-urpekaritzako espezializazio-ikastaroetan, deskonpresio-ereduak eta -taulak aztertuz, teknika eta tresna espezifikoak erabiliz, eta helburuak, ebaluazio-irizpideak eta baliabide didaktiko erabilgarriak aztertuz.	A, B, C, D, E, F.	3	r, s, t, u, v, w, x y, z.
UD, 4. zk. 6 ordu aurrez aurreko. Kirol-urpekaritzako maila aurreratuko	A, B, C, D, E, F.	4	gg, hh, ii, jj, kk, ll, mm, nn, oo.



eta espezializazioko ikastaroetan urpekari-talde bat orientatzeko eta zuzentzeko teknikak eta trebetasunak irakasten eta baloratzen ditu, urpekari-talde bat zer den, urpekari-burua eta haren funtzioak ezaugarritzen ditu, teknika espezifikoak erakusten ditu, helburuak eta ebaluazio-irizpideak aztertzen ditu, eta horiek gauzatzean egindako akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu.			
UD, 5. zk. 6 ordu aurrez aurreko. Urperaketa berezietako urpekaritza-teknikak eta -trebetasunak irakasten eta balioesten ditu: gauekoak, derrigorrezko itzulerarekin, ikuspenik gabe edo korronteekin, horien baldintzak eta erabiltzen diren materialak ezaugarrituz, teknika espezifikoak aplikatuz eta ematen diren urpekaritza-espezializazioko ikastaroen helburuak, ebaluazio-irizpideak eta baliabide didaktikoak aztertuz.	A, B, C, D, E, F.	5	aa, bb cc, dd ,ee, ff.

METODOLOGIA:

- **Ikuspegi didaktikoa**

Programazio honetan proposatzen den metodologia didaktikoa sorkuntza ikuspegi batean oinarritzen da, modu honetan, ikasleek osatuko dute ikasketa prozesua. Horretarako, ikasleen aurre jakintza kontuan hartu behar da estrategia gogotsuak eta parte-hartzaileak eginez; **non ikasleak ikastaldiaren protagonistak** diren, eta ez elementu pasiboak; eta non **irakasleak orientatzaile, sustatzaile eta bideratzaile** papera beteko duen ikaslearen lehiaren garapenerako; konfiantza giro bat sortuz ikasleen parte-hartzerako eta **motibaziorako**. Helburu nagusia ikaslea, progresiboki, bere ikasketa propioen kudeatzailea bihurtzea izango da.

Talde lanen dinamika, ikasleak tamaina desberdinetako taldeetan sailkatuz burutuko den jardueraren arabera, eta IKT-en erabilera, metodo honen bi pilare izango dira, gaitasun sozial eta zibikoak zein digitalak indartuz. **“Moodle”** plataforma hezigarria erabiliko dugu, non, honi esker, ikasleek aurkezpen digitalak, protokoloak, multimedia materiala eta ekintzetarako web orri nagusietarako estekak izango dituzte. Horretaz gain, ariketa interaktiboen ebazpenak eta zereginen entregak egiteko baliabidea izango da. Lehentasunetako bat, ikasleak **ikasketa esanguratsu** bat eskuratzea da, ikasitakoa ulertuz (esanahia erantsiz), ikasgela barruko zein kanpoko egoeretan aplikatzeko gai izatea (jakintza **emangarria**), eta beren inguru sozial eta profesionalarekin (jakintza **gaitasuna**) lotzea. Hala eta guztiz, ezin dugu oroimenezko-ikasketa guztiz baztertu, beharrezkoa izaten jarraituko duela momentu zehatzetan, gertaera eta datuen ikasketarako, esaterako.



• Teknika metodologikoak

Lehen azaldutako ikuspegi didaktikoa burutzeko, teknika eta estrategia metodologiko hauek erabiliko ditugu:

- **Azalpen metodoa:** Irakasle zein ikasleek, aurkezpen digital baten proiektzioaren (PPT) laguntzaren bidez.
- **Erakustaldi/Modelizazio:** irakasle, ikasle edo aditu batek eginda.
- **Praktika bideratua:** non ikasleak, irakasleak egindako eta bideratutako prozedura bat errepikatuko duen. Irakasleak zuzenketak, gogoetak, ebaluazioa... egingo ditu.
- **Praktika autonomoa:** Ikaslearen parte-hartzea autonomia eskuratzeko eta irakaslearen behaketa baloraziorako.
- **Ideia-jasa:** Iritzia emateko, askatasuna sustatzeko, inguru bat izateko eta edukiak lantzeko ikuspegi berriak sortzeko.
- **Mahai-inguru:** Christopher Laudell-ek Harvard Unibertsitatean, 1870ean, sortutako teknika da. M.L. Fabraren hitzetan, talde edo azpitaldeetan egoera erreal edo alegiazko bat aztertzean eta ebazpena aurkitzean datza. Metodo honek aurkikuntzaren bidezko ikasketan laguntzen du. Zentzu honetan, Winston Churchill-ek uste zuen "gure zeregina da besteen esperientziatik ikastea, zeren eta gureak askoz zailagoa da eta askotan beranduegi heltzen da".

EBALUAZIO IRIZPIDEAK:

Orokorrean, ebaluazio tresnak hau dira:

- o Asistentzia kontrola kalifikazio irizpideak jarraituz.
- o Azterketa idatzia, konbinatua edo bakarkako zein taldeko lanengatik ordezkatua.
- o Praktikotasunezko suposizioen ebazpen-azalpena.

KALIFIKAZIOAK:

Derrigorrezko asistentzia: Gutxieneko asistentzia %90ekoa izan behar da. %75-%90 bitartean daudenek errekuperatzeko aukera izango dute lan osagarrien bidez. %75etik beherakoak, ordea, bigarren deialdira aurkeztu beharko dira asistentziak betez ez-ohiko deialdian ebaluatuak izateko.

Lanak eta azterketak: Nota orokorraren %50a.

Praktikotasunezko suposizioen ebazpen-azalpena eta erronken lorpena: nota orokorraren %30a.

Ahozko proba. Erronken defentsa oral: nota orokorraren %20a.

Modulu hau ohiko deialdian (jarraian) gainditzeko, beharrezkoa da ebaluazio irizpideetan ageri diren atal guztietan 5 puntu edo gehiagoko kalifikazioa izatea, eta asistentziak betetzea.

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK:

Kalifikazioei begirako atal baten haustek ohiko deialdian modulua ez gainditzea esan nahi du, hau gainditzeko bigarren deialdi ez-ohiko batera joateko beharraz. Ohiko deialdian ez gainditzearen arrazoia agertze falta izango balitz, hauek berreskuratu beharko lirarteke ez-ohiko deialdia baino lehenago, ohikoaren baldintza berberetan.

Ez gainditzearen arrazoia aurreko atalen bat izango balitz, irakasleak txartzat adierazitako alderdiak errepikatu edo eraldatu beharko ditu



KIROLENE
KIROL IRAKASKUNTZEN IKASTETXE PUBLIKOA



Irakasgai hau (beste batzuk bezala) gaindituta egon behar da heziketa praktikoa hasi baino lehen.

OHARRAK